

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZAKO GIDALIBURUA

LEKU SEGURUAK SORTZEKO:
Oinarrizko kontzeptuak eta gomendioak

GUÍA DE ARQUITECTURA Y URBANISMO PARA GENERAR LUGARES SEGUROS: Conceptos básicos y recomendaciones

Ezekiel Collantes Gabella



emeren la zabal ezazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZAKO
GIDALIBURUA**

LEKU SEGURUAK SORTZEKO:

Oinarrizko kontzeptuak eta gomendioak

**GUÍA DE ARQUITECTURA Y URBANISMO
PARA GENERAR LUGARES SEGUROS:**

Conceptos básicos y recomendaciones

Ezekiel Collantes Gabella

emeri ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Collantes Gabella, Ezekiel

Arkitektura eta hirigintzako gidaliburua leku seguruak sortzeko : oinarriko kontzeptuak eta gomendioak = Guía de arquitectura y urbanismo para generar lugares seguros : conceptos básicos y recomendaciones / Ezekiel Collantes Gabella. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, D.L. 2021. – 116 p. : il.

Bibliogr.: p. 107-108.

L.G / D.L.: LG BI 01312-2021 - ISBN: 978-84-1319-351-9

1. Arquitectura y sociedad. 2. Urbanismo. 3. Sociología urbana. 4. Seguridad pública.
I. Guía de arquitectura y urbanismo para generar lugares seguros : conceptos básicos y recomendaciones.

711.28



ARKITEKTURA
GOI ESKOLA
TEKNIKOA
ESCUELA
TÉCNICA SUPERIOR
DE ARQUITECTURA



INGURUMEN, LURRALDE PLANINGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAIALA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

Egilea / Autor: Ezekiel Collantes Gabella

Azala / Portada: Eneko Garin Arrastoa (Argazkia)

Argazkiak eta irudiak / Imágenes y fotografías: Eneko Garin Arrastoa

Diseinua eta maketazioa / Diseño y maquetación: Roberto Gutierrez

Itzulpengintza / Traducción: Hitzurun Hizkuntz Zerbitzuak

Aholkularitza / Asesoría: Andrea Díaz Rozas

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

L.G / D.L.: LG BI 01312-2021

ISBN: 978-84-1319-351-9

AURKIBIDEA

1. SARRERA **7**

Zer arazo dago?	9
Zergatik gertatzen da?	10
Nola egin aurre segurtasunik ezari arkitekturatik eta hirigintzatik?	12

2. LEKU SEGURUAK SORTZEKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK **17**

Zainketa eta ikusgaitasuna	22
Irisgarritasuna eta mugikortasuna	23
Bizitasuna	24
Komunitatea	25
Ingurunearen kalitatea	27

3. OINARRIZKO KONTZEPTUEKIN LOTUTAKO HIRI ALDAGAIK: GOMENDIOAK **29**

3.1. Hiri antolamendua	33
3.1.1. Hiri egitura eta morfologia	33
3.1.2. Lurzoruaren erabilerak	43
3.1.3. Mugikortasun sarea	49
3.1.4. Hiri berriztapena	53
3.2. Espazio Publikoa	57
3.2.1. Ezaugarri fisiko eta morfologikoak	59
3.2.2. Hiri altzariak eta materialak	67
3.2.3. Argiztapena, seinaleztapena eta ekipoa	71
3.2.4. Parte hartzea	75
3.3. Ekipamenduak eta zerbitzuak	77
3.3.1. Hiri ingurunearekiko erlazioa	77
3.3.2. Sarbideak eta eremu komunak	79
3.3.3. Erabilera publikoa duten aparkaleku pribatuak	81
3.4. Etxebizitza multzoak	83
3.4.1. Antolamendu orokorra	83
3.4.2. Kalearekiko harremana	87

ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN **7**

¿Cuál es el problema?	9
¿Por qué ocurre?	10
¿Cómo hacer frente a la inseguridad desde la arquitectura y el urbanismo?	12

2. CONSIDERACIONES BÁSICAS PARA GENERAR LUGARES SEGUROS **17**

Vigilancia y visibilidad	22
Accesibilidad y movilidad	23
Vitalidad	24
Comunidad	25
Calidad ambiental	27

3. LAS VARIABLES URBANAS EN RELACIÓN A LAS CONSIDERACIONES BÁSICAS: RECOMENDACIONES **29**

3.1. Ordenación urbana	33
3.1.1. Tejido y morfología urbana	33
3.1.2. Usos del suelo	43
3.1.3. Red de movilidad	49
3.1.4. Regeneración urbana	53
3.2. Espacio público	57
3.2.1. Cualidades físicas y morfológicas	59
3.2.2. Mobiliario urbano y materiales	67
3.2.3. Iluminación, señalización y equipos	71
3.2.4. Participación	75
3.3. Equipamientos y servicios	77
3.3.1. Relación con el entorno urbano	77
3.3.2. Accesos y áreas comunes	79
3.3.3. Aparcamientos privados de acceso público	81
3.4. Conjuntos residenciales	83
3.4.1. Ordenación general	83
3.4.2. Relación con la calle	87

3.4.3. Sarbideak	89	3.4.3. Accesos	89
3.4.4. Eremu komunak	91	3.4.4. Áreas comunes	91
3.4.5. Etxebizitza: banaketa eta fatxadak	95	3.4.5. La vivienda: distribución y fachadas	95
3.5. Hiri kudeaketa	97	3.5. Gestión urbana	97
3.5.1. Jardueren kudeaketa orokorra	97	3.5.1. Gestión general de las actividades	97
3.5.2. Gaeko jardueraren kudeaketa	99	3.5.2. Gestión de la actividad nocturna	99
3.5.3. Mantentze lanak eta programa sozialak	100	3.5.3. Mantenimiento y programas sociales	100
ERREFERENTZIAZKO BIBLIOGRAFIA	105	BIBLIOGRAFÍA DE REFERENCIA	105
GLOSARIOA	111	GLOSARIO	111

1. SARRERA

1. INTRODUCCIÓN

ZER ARAZO DAGO?

Segurtasunik ezaren pertzepzioa edo delituarekiko beldurra pertsona batek delitu baten biktima izateko duen beldurra edo izua da. Segurtasunik ezaren pertzepzioa oztopo psikologiko bat da, eta gure portaera mugatzeaz gain, hainbat eratako egoera emozionalak, jarrerak edo pertzepzioak eragiten ditu.

Alderdi indibidualean, delituarekiko beldurrak berekin dakar askatasun pertsonalaren mugatzea, bakartze soziala eta konfiantza pertsonalik eza. Horrek, aldi berean, aldaketa fisiologiko kaltegarriak (gaixotasun fisikoak, adibidez), ondorio psikologikoak (depresioa, besteak beste) eta jokamolde aldaketak eragin ditzake.

Alderdi kolektiboan, delituarekiko beldurra hiri eta gizarteetako arazo larri bat da. Hainbat ikerlanek berretsi dutenez, segurtasunik ezak ondorio kaltegarriak izan ditzake bizi kalitatean: auzoetako kohesioa nahasten du, komunitatearen eta auzotasunaren zentzua apurtzen du, mesfidantza sortzen du pertsonen artean, harreman sozialak eta atxikimendua urratzen ditu, bakartzea dakar, ordena sozialaren higadura sustatzen du eta kalte egiten dio komunitate baten irudi publikoari (Garofalo, 1981; Skogan, 1986; Taylor and Covington, 1993; Ross and Mirowsky, 1999).

Delituarekiko beldur maila altuak ez dira erregistratzen delinkuentzia tasa handia duten eremuetan bakarrik; delinkuentzia tasa txikikoetan ere bai. Era berean, ohikoa da oso gutxitan gertatzen diren delituak pairatzeko beldur izatea. Delitu baten biktima izateko beldurra hori gertatzeko arrisku erreala baino nabarmenki handiagoa izaten dela, horixe da kezagarria (1. irudia). Biktima izateko beldurraren eta arrisku errealaren arteko desoreka horri “beldurraren paradoxa” esaten zaio, eta emakumeen, gutxiengo etnikoen eta adinekoen artean ageri da, nagusiki (Hale, 1996).

¿CUÁL ES EL PROBLEMA?

La percepción de inseguridad o miedo al delito es la percepción de miedo o temor que una persona tiene a convertirse en víctima de un delito. La percepción de inseguridad es una incomodidad psicológica que genera restricciones en nuestro comportamiento e incluye diferentes estados emocionales, actitudes o percepciones.

En lo individual, el miedo al delito está asociado a la limitación de libertad personal, el aislamiento social y la falta de confianza personal. Esto a su vez, puede llegar a generar cambios fisiológicos perjudiciales (como enfermedades físicas), efectos psicológicos (como la depresión) y modificaciones de la conducta.

En lo colectivo, el miedo al delito es un problema urbano y social importante. Diversos estudios han confirmado que la inseguridad puede llegar a tener consecuencias negativas en la calidad de vida: altera la cohesión de los barrios, fractura el sentido de comunidad y vecindad, crea desconfianza interpersonal, rompe las relaciones sociales y el apego, conduce al aislamiento, contribuye a una erosión del orden social, y daña la imagen pública de una comunidad (Garofalo, 1981; Skogan, 1986; Taylor and Covington, 1993; Ross and Mirowsky, 1999).

Los niveles altos de miedo al delito no sólo aparecen en zonas caracterizadas por tasas de delincuencia alta, sino también en aquellas con tasas bajas. Del mismo modo, es común que las personas teman ser víctima de delitos que ocurren con poca frecuencia. Lo preocupante es que el miedo a ser víctima de un delito suele superar significativamente el riesgo real a serlo (imagen 1). Este desajuste entre el miedo y el riesgo real de ser víctima se conoce como la “paradoja del miedo”, algo que se evidencia sobre todo entre las mujeres, las minorías étnicas y las personas mayores (Hale, 1996).



1 irudia: delitu tasa eta delituarekiko beldurraren arteko erlazioak egoera desberdinak sor ditzake; egoera bakoitzak neurri desberdina behar du.

Imagen 1: La relación entre tasa de delito y miedo al delito puede dar diferentes situaciones; cada situación requiere una medida diferente.

EAEn, delituen tasak oso txikiak dira, Europako eta munduko beste eremu batzuekin alderatzen baditugu. Hemen, gehienetan, segurtasunik ezaren arazoak benetako biktimizazioarekin baino zerikusi handiagoa du pertzepzioarekin edo biktima izateko beldurrekin.

Segurtasunik ezaren pertzepzioa murriztea garrantzitsua da, horren ondorio indibidual eta kolektiboek delituarekiko beldurra berrelikatzen baitute. Lehtasunezko zeregin bat da, eta pertsona orok hiriko ingurunea eskubide guztiak baliatuz eta askatasun osoz erabiltzea ahalbidetzen du.

ZERGATIK GERTATZEN DA?

Gabriel eta Greve egileen arabera (2003), delituarekiko bi beldur mota daude: egoerazkoa eta jarrerazkoa. Egoerazko beldurra egoera iragankor batekin erlazionatuta dago, hala nola gauzez gure atzetik entzuten ditugun oin hots edo

En la C.A.PV. las tasas de comisión de delitos son muy bajas si las comparamos con otras zonas de Europa y del mundo. Aquí, el problema de la inseguridad está relacionado la mayoría de veces más con la percepción de inseguridad o el miedo a ser víctima de un delito que con una victimización real.

Reducir la percepción de inseguridad es importante, ya que sus consecuencias individuales y colectivas retroalimentan el miedo al delito. Se trata de una labor prioritaria que permite que todas las personas puedan hacer uso del entorno urbano ejerciendo todos sus derechos y total libertad.

¿POR QUÉ OCURRE?

Según Gabriel y Greve (2003), existen dos tipos de miedo al delito: el situacional y el disposicional. El miedo situacional tiene relación con un estado transitorio, como unas pisadas o ruidos extraños detrás nuestro a la noche. En el caso

bestelako soinu arraroekin. Egoerazko beldurra-
ren kasuan, testuinguruak, agertokiak edo/eta
egoera bateko baldintzek eragiten dute segur-
tasunik eza.

Bestalde, jarrerazko beldurrak delituarekiko
beldurra izateko dugun joerarekin du zerikusia.
Jarrerazko beldurra epe luzeko garapen baten
emaitza da, eta harengan eragina dute baldin-
tza eta ezaugarri pertsonalek (antsietate han-
diko pertsona bat, adibidez) eta esperientzia
pertsonalek (zuzenean edo zeharka biktima
izatea, adibidez). Egile horiek egiten ez badute
ere, jarrerazko beldurrari egiturazko arrazoik
edo arrazoi sistemikoak ere erantsi behar ge-
nizkiok (hala nola matxismoa, homofobia,
transfobia, klasismoa edo arrazakeria), horiek
beldurrak areagotzen dituzten testuinguruzko
baldintzak sortzen baitituzte. Jarrerazko beldu-
rra sortzen duten faktoreak interakzioan dau-
de, eta horiek, aldi berean, egoerazko beldurra
areagotzen dute.

Doran eta Burgess egileek (2011) honela sail-
katzen dituzte segurtasunik ezaren fenomenoak
azaltzeko hurbilketak edo teoriak:

- a) Aukera kriminalaren eta biktimizazio arris-
kuaren teoriak: zerikusia dute delituarekin
berarekin eta horren pertzepzioarekin, edo
arriskuko leku zein ordutegiei buruz egiten
ditugun judizioekin.
- b) Teoria demografikoak: generoari, adinari
edo maila sozioekonomikoari begirako egi-
turazko hutsuneekin erlazioatuta daude.
- c) Biktimizazioarekin lotutako teoriak: iraga-
neko zuzeneko biktimizazio edo zeharkako
biktimizazio esperientziek (zurrumuruak,
komunikazio beldurrak, eremuaren errepu-
tazioa, etab.) eragindako delituarekiko bel-
durra azaltzen dute.
- d) Teoria sozialak: barne hartzen dituzte arris-
kuaren gizartearen hipotesia, gizarteko an-

del miedo situacional, el contexto, el escenario
y/o las circunstancias que rodean a una situa-
ción son las generadoras de inseguridad.

Por otro lado, el miedo disposicional tiene
que ver con nuestra disposición general a ten-
er miedo al delito. El miedo disposicional es
el resultado de un desarrollo a largo plazo, y
está influenciado por las condiciones y atri-
butos personales (una persona ansiosa, por
ejemplo), y las experiencias personales (de
victimización directa o indirecta, por ejemplo).
Aunque estos autores no lo hacen, habría que
sumar al miedo disposicional, razones estruc-
turales o sistémicas (como el machismo, la
homofobia, la transfobia, el clasismo o el racis-
mo) que crean condiciones contextuales que
intensifican estos miedos. Existe una interac-
ción entre los diferentes factores generadores
del miedo disposicional, que a su vez poten-
cian el miedo situacional.

Doran y Burgess (2011) clasifican las diferen-
tes aproximaciones o teorías para explicar el
fenómeno de la inseguridad de la siguiente
manera:

- a) Teorías de la oportunidad criminal y riesgo
de victimización: tienen que ver con el pro-
pio delito y su percepción, o los juicios que
realizamos acerca de lugares y horarios de
riesgo.
- b) Teorías demográficas: están relacionadas
con deficiencias estructurales en cuanto a
género, edad o nivel-socioeconómico.
- c) Teorías relacionadas con la victimización:
explican el miedo al delito asociado a expe-
riencias pasadas de victimización directa o
victimización indirecta (rumores, medios de
comunicación, reputación de la zona, etc.).
- d) Teorías sociales: engloban las hipótesis de
la sociedad del riesgo, de la desorganización
social, de los cambios bruscos en la compo-

tolaketarik ezarena, osaera demografikoaren bat-bateko aldaketena, integrazio eta kohe- sio sozialik ezarena edo komunitatearen na- rriadurarena.

- e) Inguruneari lotutako teoriak: barne hartzen dituzte desordenaren eta gizalegerik ezaren hipotesiak, delitu zantzuen ikuspegia eta ingurune arriskutsu eta seguruen gaineko hipotesia.

Ikusten dugunez, segurtasunik eza arazo kon- plexua da, eta transbertsala, hau da, aldagai fi- siko/espazial, sozial, kultural eta pertsonal ugari biltzen ditu, eta jatorri bat baino gehiago izan ohi du. Izatez, hainbat faktore pilatzen direnean hauteman ohi da segurtasunik eza; esate bate- rako, adineko emakume batek (teoria demogra- fikoa) beldurra sentitzen du etxebizitza batzuen azpiko tunel estu eta ilun bat zeharkatu behar duenean (ingurunearekin lotutako teoria), bizi- kidetza arazo larriak dituen auzo batean (teoria soziala) erosketak egin behar dituen bakoitzean.

Nahiz eta gidaliburu honetan onartzen den arrazoiak interdependenteak direla eta arazoari ikuspegi integral eta diziplinarteko batetik heldu behar zaiola, segurtasunaren pertzepzioarekin lotutako aldagai fisiko eta espaziale- tan jarriko du arreta, arrazoi metodologikoak direla eta.

NOLA EGIN AURRE SEGURTASUNIK EZARI ARKITEKTURATIK ETA HIRIGINTZATIK?

Segurtasunik ezaren pertzepzioak funtsezko bi elementu biltzen ditu: hori hautematen duen pertsona bat eta ingurune bat. Bi elementuak interdependenteak dira; izan ere, pertsonok egiten dugu hiri ingurunea eta, aldi berean, in- guruneak “gu egiten gaitu”.

sición demográfica, de la falta de integración y cohesión social, o del deterioro comunita- rio.

- e) Teorías ambientales: engloban las hipótesis del desorden/incivilidades, la perspectiva de las señales de delitos y la hipótesis sobre en- tornos peligrosos y seguros.

Como vemos, la inseguridad es un problema complejo y transversal a múltiples variables físicas/espaciales, sociales, culturales y persona- les, y que suele deberse a más de una causa. De hecho, la percepción de inseguridad suele deberse a una acumulación de factores, como por ejemplo, el miedo que siente una mujer mayor (teoría demográfica) cuando cruza un túnel estrecho y oscuro bajo unas viviendas (teoría ambiental) cada vez que tiene que hacer la compra, en un barrio con graves problemas de convivencia (teoría social).

Si bien este manual reconoce que las causas son interdependientes y que debe abordarse mediante una visión integral e interdisciplinar, por razones metodológicas se centrará en las variables físicas y espaciales asociadas a la percepción de seguridad.

¿CÓMO HACER FRENTE A LA INSEGURIDAD DESDE LA ARQUITECTURA Y EL URBANISMO?

La percepción de inseguridad reúne dos ele- mentos fundamentales: una persona recep- tora, y un entorno. Los dos elementos son in- terdependientes, ya que las personas hacemos el entorno urbano, y a su vez, el entorno “nos hace”.

Cada persona es única. Las diferencias entre las personas, ya sean reales o percibidas, pueden

Pertsona bakoitza berdingabea da. Pertsonen arteko desberdintasunak, izan errealak edo hautemanak, haien aukeren, gaitasunen, beharren edo zaurgarritasunaren baldintzatzaile izan daitezke. Hala, adinak, generoak, sexu orientazioak, jatorri etnikoak edo estatus sozioekonomikoak pertsona bakoitzak hiri ingurunea hauteman eta bizitzeko duen modua baldintzatzen dute, neurri handi batean.

Delituarekiko beldurrari dagokionez, hainbat ikerlanek frogatu dute adineko pertsonak, emakumeak, LGTBIQ pertsonak eta estatus sozioekonomiko baxuko migratzaileak direla hiri ingurunean segurtasunik ezaren pertzepzio handiena agertzen dutenak (Austin et al. 2002). Nahiz eta egia den pertzepzio horrek lotura izan dezakeela faktore pertsonalekin, hala nola biktimizazio esperientziekin edo jarrera izukorra izateko joerarekin (jarrerazko beldurra), gehienetan zerikusia du gure gizarteko egiturazko desberdinkeria sakonekin. Funtsean, gizartea era askotako pertsonak, esperientziak eta sentsibilitateak daudela kontuan hartu gabe eta herritar estandarizatu batean oinarrituta egituratzen joan delako sortu dira desberdinkeria horiek. Horrek guztiak eragina du gure hiri, auzo edo etxebizitzetako ekoizpen espazialean, eta horrek, aldi berean, eragina du pertsonon izateko, sentitzeko edo jokatzeke moduan.

Arkitekturaren eta hirigintzaren ardurak da gizartean eragin positiboa izango duten ingurune fisikoak sortzea eta pertsona orori bermatzea hiriaz baldintza berdinetan gozatzeko eskubidea. Horretarako, sistematikoki aplikatu behar da genero, adin eta aniztasun ikuspegia. Genero, adin eta aniztasun ikuspegia modu transbertsalean aplikatzeak zera esan nahi du, hiriaren plangintza eta diseinua aztertu, diseinatu, ezarri, monitorizatu eta ebaluatzean kontuan hartzea pertsona guztien berdintasuna eta bete-beteko parte hartzea. Generoari, adinari eta aniztasunari lotutako sentsibilitatea ulertzea

determinar sus oportunidades, capacidades, necesidades o vulnerabilidad. Así, la edad, el género, la orientación sexual, el origen étnico o el estatus socioeconómico, determinan en gran medida cómo percibe y vive cada persona el entorno urbano.

En cuanto al miedo al delito, diversos estudios han demostrado que las personas mayores, las mujeres, las personas LGTBIQ y las personas migrantes de bajo estatus socioeconómico son las que mayor percepción de inseguridad muestran en el entorno urbano (Austin et al., 2002). Si bien es cierto que la percepción de inseguridad puede estar asociada a factores personales, como experiencias de victimización o predisposición a un estado temeroso (miedo disposicional), la mayoría de veces tiene que ver con profundas desigualdades estructurales de nuestra sociedad. Estas desigualdades se deben fundamentalmente a que la sociedad se ha ido estructurando en base a un ciudadano estandarizado, sin tener en cuenta la diversidad de personas, experiencias y sensibilidades. Todo ello tiene repercusión en la producción espacial de nuestras ciudades, barrios o viviendas, y esto a su vez influye en cómo somos, sentimos o actuamos las personas.

La arquitectura y el urbanismo tienen la responsabilidad de generar entornos físicos, que repercutan positivamente en lo social, garantizando a todas las personas gozar del derecho a la ciudad en igualdad de condiciones. Para ello, es imprescindible la aplicación sistemática del enfoque de género, edad y diversidad. La transversalización del enfoque de género, edad y diversidad, significa analizar, diseñar, implementar, monitorear y evaluar la planificación y el diseño urbano teniendo en cuenta la igualdad y la plena participación de las diferentes personas. Comprender e integrar la sensibilidad de género, edad y diversidad en la arquitectura y el urbanismo es fundamental para que todas

eta berau arkitekturan nahiz hirigintzan txertatzea funtsezkoa da pertsona guztiak seguru senti daitezen hiri ingurunean.

Hortaz, hiri, auzo eta etxebizitzaren konfigurazio fisiko eta espazialak eragina du pertsonen ongizate sozial eta psikologikoan, eta seguru sentitzea faktore erabakigarria da horretarako. Ingurune eraikiak segurtasun sententzia sor dezake edo, aitzitik, segurtasunik eza eragin. Arkitektura eta hirigintza izan daitezke egoerazko nahiz jarrerazko beldurra sortzearen arrazoi nagusietako bat: egoerazko beldurra eragin dezakete, egoera jakin batzuetarako konponbide okerrak proposatzean (oinekoentzako tunel estu eta gaizki argiztatuak, adibidez), baina pertsonen jarrerazko beldurra ere susta dezakete, hiriaren, auzoaren edo bizitegi multzoaren ereduagatik beragatik (hurbileko sarrerik gabeko hiri sakabanatu bat, adibidez).

Arkitekturatik eta hirigintzatik segurtasunik eza sortzen duten egoera zehatzei heldu behar zaie (ingurunearen ikuspegia), baina, horrez gainera, errotiko arrazoietan esku hartu behar da, ingurune seguruak sortzeko. Helburu orokorrak pertsona ororentzat komunitate bizigarriagoak sortzea izan behar luke, hori baita modurik onena segurtasun pertzepzioa areagotzeko eta, hortaz, egoerazko nahiz jarrerazko beldurrari aurre egiteko.

Hauek izango lirateke komunitate bizigarri baten ezaugarriak:

- Hiri egitura trinko bat, erabileren nahasketara sustatzen duena, mugikortasuna errazten duena, kalean pertsonen presentzia bermatzen duena, hurbileko sare bat sortzen duena eta espazio publikoaren funtzio soziala indartzen duena.
- Ingurune eraikiaren neurri, eskala eta dentsitate egokiak, hurbileko ekipamendu onak eta baliabideen optimizazioa (hala nola lurzorua, energia, etab.).

las personas se sientan seguras en el entorno urbano.

Por tanto, la configuración física y espacial de las ciudades, barrios y viviendas influye en el bienestar social y psicológico de las personas, siendo la percepción de seguridad un factor determinante en todo ello. El entorno construido puede generar sensación de seguridad, o por el contrario, generar inseguridad. La arquitectura y el urbanismo pueden ser una de las principales razones por las que se genera tanto el miedo situacional como el disposicional: puede generar miedo situacional al proponer singularidades mal resueltas (como túneles peatonales estrechos y mal iluminados, por ejemplo), pero también fomentar el miedo disposicional de las personas por el propio modelo de ciudad, barrio o conjunto residencial (una ciudad dispersa sin una red de proximidad, por ejemplo).

Desde la arquitectura y el urbanismo no sólo se deben abordar las situaciones puntuales generadoras de inseguridad (visión ambiental), sino también incidir en las causas de raíz para generar entornos seguros. El objetivo general debería ser el de generar comunidades más habitables para todas las personas, ya que es la mejor manera de incrementar la percepción de seguridad, y por tanto hacer frente tanto al miedo situacional como al disposicional.

Las características de una comunidad habitable serían:

- Un tejido urbano compacto que potencie la mezcla de usos, facilite la movilidad, garantice la presencia de personas en la calle, genere una red de proximidad y fomente la función social del espacio público.
- Unas dimensiones, escala y densidad adecuadas del entorno construido, buenos equipamientos de proximidad y optimización de los recursos (como el suelo, la energía, etc.);

- Alderdi produktiboa eta zaintzak, biak aintzat hartzen dituen hiri eredu bat.
- Garraio publiko ona eta auzoen, hiriko erdigunearen eta landako eremuen artean konektagarritasun ona bermatuko duten garraio azpiegiturak.
- Denboran zehar premia desberdinak ase ditzaketen eraikinak eta baliabideen erabilera minimizatuko dutenak.
- Etxebizitza mota eta etxebizitza edukitzeko modu desberdinen nahasketa egokia, etxe tamaina, adin eta profil sozioekonomikoen sorta zabala sustatzeko.
- Kalitate oneko tokiko zerbitzu eta ekipamendu publikoak zaintzarako, hezkuntza eta formakuntzarako, osasun arretarako, arlo soziokulturalerako eta aisialdirako.
- Ingurune hurbil osasungarria, espazio publikoaren diseinu ona eta berdeguneak dituen.
- Tokiko ekonomia oparo eta justua, pertsona guztientzat enplegua sortuko duena.
- Tokiko kultura askotarikoa, bizia eta sortzailea.
- Gizarte kohesioa, komunitate harrotasuna eta bertako kide izatearen sentimendua.
- Erronka komunei modu positiboan erantzuteko aukera emango duen gobernantza eredu.
- Herritarren eta gainerako eragileen konpromiso eta parte hartze errealak plangintzan, diseinuan eta administrazioan; asoziazionismoa, boluntarioria eta komuna dena sustatzea.
- Un modelo de ciudad que considere por igual lo productivo y los cuidados;
- Buen transporte público e infraestructuras de transporte que aseguren una buena conectividad entre los barrios, el centro urbano y las zonas rurales;
- Edificios que pueden satisfacer diferentes necesidades a lo largo del tiempo, y que minimicen el uso de recursos;
- Una mezcla bien integrada de diferentes tipos y tenencias de vivienda para fomentar una amplia gama de tamaños, edades y perfiles socioeconómicos;
- Servicios y equipamientos públicos locales de buena calidad, para los cuidados, la educación y formación, asistencia sanitaria, socioculturales y de ocio;
- Un entorno local saludable con un buen diseño del espacio público y presencia de áreas verdes;
- Una economía local floreciente y justa que genere empleo para todas las personas;
- Una cultura local diversa, vibrante y creativa,
- Cohesión social, orgullo de comunidad y sentido de pertenencia al lugar;
- Un modelo de gobernanza que permita responder positivamente a los retos comunes;
- Compromiso y participación efectivos de la ciudadanía y demás agentes en la planificación, diseño y administración; fomentar el asociacionismo, el voluntariado y lo común.

2. LEKU SEGURUAK SORTZEKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK

2. CONSIDERACIONES BÁSICAS PARA GENERAR LUGARES SEGUROS

Egile askok aitzindarizat dute Jane Jacobs, leku seguruagoak sortzea dakarten komunitate bizigarriagoak proposatzeari dagokionez. *The death and life of great American cities* liburua 1961ean argitaratu zuen lehen aldiz (Jacobs, 2013), eta bertan proposatu zituen hiri bat bizigarriagoa eta seguruagoa izateko kontuan hartu behar diren kontzeptu batzuk:

- Biztanle dentsitate egokia: kaleetan bat-batean norbaitekin topo egin ahal izateko behar beste jende ibiltzen dela bermatzea.
- Erabilera mistoak: etxebizitzaren, eremuaren eta merkataritzaren nahasketa sustatzea, tokiko ekonomia, interakzio soziala eta hurbileko sarea sortzeko.
- Begiak kalean: kalean pertsonen presentzia bermatuta, zainketa naturala eta elkar zaintza lortzen dira; leihoak kalera begira dituzten eraikinek ere zainketa naturala mesedetzen dute.
- Giza eskala: hurbileko sarea eta etxadi txikiz osatutako hiri bilbe trinkoa sortzea eta oinezko mugikortasuna lehenestea.

Defensible Space liburuan (Newman, 1972), Oscar Newmanek sakonago aztertu zituen Jacobsek proposatutako kontzeptuetako batzuk, eta beste batzuk ere proposatu zituen, auzo seguruagoak sortzeko asmoz. Lau hauetan laburbil ditzakegu:

- Lurraldetasuna: kidetza sentimendua sortzea, espazio pribatuak eta partekatuak definituz (espazio erdipribatuak eta erdipublikoak sustatzea).
- Zainketa: auzo bateko pertsonen zainketa naturala eskaintzea, eraikinen konfigurazioa eta leiho zein sarbideen kokapena kontuan hartuta.
- Irudia: espazioari buruzko pertzepzioan eragin positiboa izatea, leku garbiak, ongi mantenduak eta txukunak sustatuz.

Jane Jacobs es considerada por muchos autores como la pionera en proponer comunidades más habitables que repercuten en la producción de lugares más seguros. A través de su libro “The death and life of great American cities” publicado por primera vez en 1961 (Jacobs, 2013) propone una serie de consideraciones para que una ciudad sea más habitable y segura:

- Densidad poblacional adecuada: asegurar la presencia de personas en las calles para que se produzcan encuentros espontáneos.
- Usos mixtos: fomentar la mezcla de vivienda, espacios productivos y comercio que genere economía local, interacción social y una red de proximidad.
- Ojos en la calle: asegurar la presencia de personas en la calle hace que exista vigilancia natural y cuidado mutuo; los edificios con ventanas orientadas a la calle que generan vigilancia natural.
- Escala humana: generar una red de proximidad y una trama urbana densa formada por manzanas pequeñas, dando prioridad a la movilidad peatonal.

Oscar Newman, a través de su libro “Defensible Space” (Newman, 1972) profundiza en algunos de los conceptos propuestos por Jacobs y también propone otros nuevos, con el fin de generar barrios más seguros. Podríamos resumirlos en cuatro:

- Territorialidad: crear sentido de pertenencia mediante la definición de espacios privados y compartidos (fomentar espacios semiprivados y semipúblicos).
- Vigilancia: proporcionar vigilancia natural a las personas de un barrio mediante la configuración de los edificios y la ubicación de ventanas y accesos.
- Imagen: influenciar positivamente en la percepción del espacio, promoviendo lugares limpios, bien mantenidos y ordenados.

- Alboratze geografikoa: ondoko espazioen segurtasunean eragin positiboa izango duten espazio aktibo eta seguruak sortzea.

1980ko hamarkadatik aurrera, hainbat programa garatu dituzte, delituari diseinuaren bitartez aurre egiteko; CPTED edo Crime Prevention Through Environmental Design delakoaren barruan bildu genitzake. CPTED teoriak maiz kritikatu izan dira determinista izateagatik eta prebentzioan zentratuegia egoteagatik. CPTED teoriak beste hiru kontzeptu proposatzen ditu, Newmanek proposatutakoez gain (Cozens et al., 2005; Cozens and Love, 2015):

- Sarbideen kontrola: gaizkile posibleei jabego batera sartzeko gogoia kentzea.
- Babes fisikoa: delituak egitea zailtzea, babes neurriak ezarri.
- Bidezko jarduna sustatzea: espazio komunen erabilera zibikoa sustatu eta babestuko duen diseinu bat proposatzea.

Safe Cities lanean (Wekerle and Whitzman, 1995), Gerda R. Wekerlek eta Carolyn Whitzmanek ideia hau proposatu zuten: komunitate bizigarriek hiri segurua sortzen dute. CPTED teoriaren kontzeptuei uko egin gabe, Wekerlek eta Whitzmanek ikuspegi integrala erabiltzen dute hiri seguruak sortzeko garaian, eta ikuspegi integral horretan, garrantzitsuak dira herritarren parte hartzea, garapen komunitarioa, hezkuntza, bat-bateko aldaketa fisiko eta sozialekiko prebentzioa eta hiriko segurtasuna aldaketa komunitario positibo baten katalizatzaile gisa. Genero ikuspegiaren bidez, hiri ingurune ikusgaitasunarekin eta mugikortasunarekin lotutako ingurune faktore batzuen garrantzia aipatzen dute:

- Ikusmen lerroak: pertsonen norantz doazen ikustea eta ibilbideen aukeraketa arrazoizko bat egitea ahalbidetzea.

- Yuxtaposición geográfica: generar espacios activos y seguros que influyan positivamente en la seguridad de los espacios adyacentes.

A partir de la década de 1980 se han ido generando diversos programas para hacer frente al delito a través del diseño, que los podríamos englobar en lo conocido como CPTED o Crime Prevention Through Environmental Design. La teoría CPTED, a menudo criticada por ser determinista y estar excesivamente centrada en lo preventivo, propone tres conceptos más, además de los ya expuestos por Newman (Cozens et al., 2005; Cozens and Love, 2015):

- Control de los accesos: desalentar el acceso a una propiedad de posibles delincuentes.
- Protección física: dificultar la comisión de delitos a través de medidas defensivas.
- Apoyo a la actividad legítima: proponer un diseño que fomente y apoye un uso cívico del espacio común.

Gerda R. Wekerle y Carolyn Whitzman, a través de su trabajo “Safe Cities” (Wekerle and Whitzman, 1995) proponen la idea de que una ciudad segura está formada por comunidades habitables. Sin renunciar a los conceptos del CPTED, Wekerle y Whitzman defienden una visión integral a la hora de generar ciudades seguras, donde es importante la participación de la ciudadanía, el desarrollo comunitario, la educación, la prevención ante cambios físicos y sociales bruscos, y la seguridad urbana como catalizadora de un cambio comunitario positivo. A través del enfoque de género, señalan la importancia de ciertos factores ambientales relacionados con la visibilidad y la movilidad en el entorno urbano:

- Líneas de visión: permitir a las personas ver hacia dónde se dirigen y hacer una elección razonable de rutas.

- Ihesbiderik gabeko lekuak: ihesbiderik ez duten kalezuloak, korridoreak edo irteerarik gabeko eremuak ekiditea.
- Mugimendu iragarleak: tunelak, gainbideak edo mugitzeko alternatibarik eskaintzen ez duten bestelako lekuak saihestea.
- Laguntza bilatzea: espazioaren diseinu orokorrak laguntza bilatzeko erraztasunak eman behar ditu, seinaleak eta bestelako komunikazio gailuak erabiliz.
- Argiztapena: ongi argizatutako leku batean errazago da zainketa naturala, ingurunearekiko pertzepzioa hobetu egiten da eta eraso-tzaile posibleek zailtasun handiagoak dituzte ezkutatzeko.

Kontzeptu horiez gainera, Wekerlek eta Whitzmanek zainketa naturalaren, erabilera mistoen, jarduera sortzaileen, kide-tza sentimenduaren eta mantentze egokiaren garrantzia azpimarratzen dute.

1980ko hamarkadatik aurrera, Merry (1981), Atlas (1991), Saville eta Cleveland (1997) eta beste zenbait egile aipatzen hasi ziren alderdi soziala garrantzitsua dela CPTED postulatuek eragin positiboa izan dezaten. Gizarte kohesioa, komunitatearen konektagarritasuna edo interakzioa, kultura komunitarioa, elkarrekiko konfiantza eta komunitateak arazo komunei aurre egiteko duen gaitasuna, besteak beste, faktore beharrezkoak dira CPTED teoriaren eraginak modu positiboan indartzeko.

Laburpen moduan esan dezakegu komunitate bizigarrien esparruan leku seguruak sortzeko funtsezkoak diren zenbait kontzeptu daudela. Laburtuz, eta argi izanda segurtasuna hiriaren aldagai fisiko guztiei dagokien elementu transbertsal bat dela, hiri ingurunearen plangintza, diseinu edo kudeaketa orok kontuan hartu behar litzuke oinarritzko kontzeptu hauek:

- Lugares de atrapamiento: evitar lugares como callejones, pasillos o espacios sin salida que no ofrecen escapatoria.
- Predictores de movimiento: evitar lugares como túneles o pasos elevados que no permiten alternativas de movimiento.
- Búsqueda de ayuda: el diseño general del espacio debe facilitar la búsqueda de ayuda, mediante la señalética y otros dispositivos de comunicación.
- Iluminación: un lugar bien iluminado favorece la vigilancia natural, mejora la percepción del entorno y dificulta la ocultación de posibles ofensores.

Además de estos conceptos, Wekerle y Whitzman insisten en la importancia de la vigilancia natural, los usos mixtos, los generadores de actividad, el sentido de pertenencia y el mantenimiento.

A partir de la década de 1980, algunos autores como Merry (1981), Atlas (1991) o Saville y Cleveland (1997) insertaron la importancia de lo social para que los postulados CPTED surtan un efecto positivo. Factores como la cohesión social, la conectividad o la interacción de la comunidad, la cultura comunitaria, la confianza mutua y la capacidad de la comunidad de enfrentarse a problemas comunes, son necesarios para potenciar positivamente los efectos del CPTED.

A modo de síntesis, podemos observar ciertos conceptos básicos para generar lugares seguros en el marco de una comunidad habitable. A modo de resumen y entendiendo que la seguridad es una cuestión transversal a todas las variables físicas de la ciudad, cualquier planificación, diseño o gestión del entorno urbano debería tener en cuenta los siguientes conceptos básicos:

Vigilancia y visibilidad: Lugares provistos de vigilancia natural, y máxima visibilidad propor-

Zainketa eta ikusgaitasuna: zainketa naturala duten lekuak, eta ahalik eta ikusgaitasun handiena dutenak, ikusmen lerro argiei eta argiztapen onari esker.

Irisgarritasuna eta mugikortasuna: ongi zehaztutako ibilbideak, espazioak eta sarbideak dituzten lekuak, mugikortasun atsegina eta segurua eskaintzen dutenak.

Bizitasuna: erabilerak nahasiz giza jarduera eta pertsonen arteko interakzioa sustatzen dituzten lekuak, uneoro segurtasun sentzazioa sortzeko.

Komunitatea: kide-tza sentimendua sustatzen duten lekuak; horretarako, lurralde sakontasunez eta hurbileko sare-z hornitu behar dira, eta herri-tarren parte hartze, besteenganako errespetua, erantzukizuna eta kohesioa bultzatu behar dira.

Ingurunearen kalitatea: ingurune zainduak eta kalitate onekoak bermatzen dituen kudeaketa publikoari lotutako lekuak, komunitatearen segurtasun sentzazioa indartzen dutenak.

ZAINKETA ETA IKUSGAITASUNA: IKUSTEA ETA IKUSIA IZATEA

“**Ikustea eta ikusia izatea**” segurtasunik ezaren pertzepzioa arintzeko printzipio nagusi bat da.

“**Kalean begiak**” dituzten lekuek laguntza jasotzeko aukera eskaintzen diote biktimari, eta erasotzaile posibleak uxatzen dituzte, ingurune zainduak sortzen dituztelako. Funtsezko gainerako ezaugarriak (irisgarritasuna eta mugikortasuna, bizitasuna, etab.) **zainketa natural** etengabea duten lekuak seguruagoak direlako teoriaraino oinarrituta daude.

Ikusmen lerro argiei eta **ikusgaitasun** onari esker, pertsonak norantz doazen ikus dezakete

cionada por líneas de visión claras y una buena iluminación.

Accesibilidad y movilidad: Lugares con rutas, espacios y accesos bien definidos que proporcionan una movilidad agradable y segura.

Vitalidad: Lugares donde se fomenta la actividad humana y la interacción entre diferentes personas mediante la mezcla de usos, generando sensación de seguridad en todo momento.

Comunidad: Lugares que promueven el sentido de pertenencia dotándolos de profundidad territorial y redes de proximidad, y a través de la participación ciudadana, el respeto por las demás personas, la responsabilidad y la cohesión.

Calidad ambiental: Lugares sujetos a una gestión pública que asegura entornos cuidados y de buena calidad, que promueven la sensación de seguridad de la comunidad.

VIGILANCIA Y VISIBILIDAD: VER Y SER VISTA/O

La idea de “**ver y ser vista** o visto” es un principio central a la hora de mitigar la percepción de inseguridad.

Los lugares con “**ojos en la calle**” ofrecen a la posible víctima la posibilidad de ayuda y ahuyentan a posibles ofensores por generar entornos vigilados. Las demás consideraciones clave (accesibilidad y movilidad, vitalidad, etc.) se basan en la teoría de que los lugares son más seguros si tienen una **vigilancia natural** permanente.

Las líneas de visión claras y la buena **visibilidad** permiten a las personas ver hacia dónde se dirigen y hacer una elección razonable de rutas, lo cual tiene un impacto significativo en la percep-

eta ibilbideen aukeraketa arrazoizkoa egin dezakete, eta horrek eragin nabarmena du segurtasunaren pertzepzioan. Paisaiaren diseinuak funtsezko eginkizuna du **ikusmen lerro argiak** eta ikusgaitasuna ahalbidetzeko.

Ilundu ondoren erabiltzeko diseinatutako eremuetan, ikusgaitasuna **argiztapen** eraginkor baten mende dago. Ongi diseinatutako argiztapen batek gaueko zainketarako aukerak handitzen ditu, eremu baten kudeaketaren gaineko mezu positiboak igortzen ditu eta ingurunearekiko iritzia hobetzen du.

IRISGARRITASUNA ETA MUGIKORTASUNA: MUGIMENDUA ETA KONEXIO SEGURUAK

Etxearen, auzoaren, hiriaren eta lurraldearen arteko **mugikortasunean jarraitutasun** on bat bermatzea funtsezkoa da segurtasunik ezaren pertzepzioa arintzeko.

Leku baten **irakurgarritasuna** oso garrantzitsua da, mugikortasun atsegina eta segurua sortzeko. Hiri egitura irakurgarri eta seguru batek ongi zehaztutako mugikortasun sare ulerterraz bat izan behar du, uneoro non gauden eta norantz goazen jakiteko aukera ematen diguna.

Bizitegi eremuak, zerbitzuak eta tokiko nahiz goragoko eskaletako ekipamenduak ongi konektatzen dituen **hurbileko sare** on bat izanez gero, hiriak bizitasuna irabazten du, eta eguneroko jarduerak errazten ditu. Hurbiltasunari eta interkonexioari esker, desplazamenduak ez dira hain luzeak, eta horrek espazio ez-segurua izateko aukera txikitzen du. Horrek zerikusia du hiri trinko eta dentsuak sortzearekin, garraio publikoko sare on bat eta hurbileko saltokiak nahiz ekipamenduak dauzkan hiriak sortzearekin. Hurbiltasunaz ari

ción de seguridad. El diseño del paisaje tiene un papel clave para permitir **líneas de visión claras** y buena visibilidad.

En áreas diseñadas para usarse después del anochecer, la visibilidad depende de una **iluminación** efectiva. Una iluminación bien diseñada aumenta las oportunidades de vigilancia nocturna, envía mensajes positivos sobre la gestión de un área y mejora la percepción del entorno.

ACCESIBILIDAD Y MOVILIDAD: MOVIMIENTO Y CONEXIONES SEGURAS

Asegurar una buena **continuidad en la movilidad** entre la casa, el barrio, la ciudad y el territorio es fundamental para mitigar la percepción de inseguridad.

La **legibilidad** de un lugar es muy importante para generar una movilidad agradable y segura. Una tejido urbano legible y seguro está dotado de una red de movilidad bien definida y comprensible, que nos permite saber dónde estamos y a donde nos dirigimos en todo momento.

Una buena **red de proximidad**, bien conectada entre las zonas residenciales, servicios y equipamientos locales y de escalas superiores hace que la ciudad gane en vitalidad y sea facilitadora de las actividades diarias. La proximidad y la interconexión hacen que los desplazamientos no sean tan largos, lo cual reduce la posibilidad de que haya espacios inseguros. Esto tiene que ver con generar ciudades compactas y densas, dotadas de una buena red de transporte público, y comercios y equipamientos de proximidad. La proximidad debe ser entendida en su dimensión física y temporal.

garela, alderdi fisikoa eta denborazkoa hartu behar dira kontuan.

Konektagarritasunari dagokionez, egoera optimoa bilatu behar da; izan ere, konexio onik ez izateak hiri baten bizitasuna ahuldu dezake, eta gutxiegi erabiltzen diren edo gaizki pentsatuta dauden konexio gehiegi izateak, aldiz, kalean jende gutxi ibiltzea eta interakzio gutxi izatea ekar dezake, eta, hortaz, espazio ez-segurua sortzea.

Diseinuak sustatu egin behar du herritarrek erraz aurkitzea leku eta eraikinetako **sarrerak eta irteerak**, eta komun publikoen, informazio taulen eta laguntza eskatzeko lekuen **irigarritasuna** bultzatu behar du.

Sarrera-irteerak leku kritikoak izan ohi dira, eta, horrexegatik, horietan ikusgaitasun eta zainketa naturala bermatu behar dira, eta ihesbiderik gabeko puntuak eta **ezkutuko** puntuak ekidin.

3.1.2.3. Permitir que la misma ubicación tenga **usos múltiples a lo largo del día** (por ejemplo, un equipamiento escolar puede albergar actividades comunitarias o deportivas después del horario lectivo o los fines de semana). Zonas como polígonos industriales, parques tecnológicos o distritos financieros deben albergar usos complementarios que generen actividad tanto en horario laborable como en fines de semana y en horario no laborable (imagen 15). La inserción de usos como guarderías, áreas deportivas, gimnasios, hostelería, comercio pequeño, incluso vivienda puede fomentar una mayor presencia de personas en estas zonas.

3.1.2.4. Las grandes áreas sin interacción humana deben ser evitadas (por ejemplo, una zona residencial sin ningún comercio ni dotación pública ligada a la calle). Especialmente nocivas son las zonas sin interacción donde además existen lugares de atrapamiento, predictores de movimiento y/o poca vigilancia natural (imagen 16). Fomentar actividades que eviten que estas zonas queden aisladas.

3.1.2.5. La inserción de los **usos comerciales, institucionales, lúdicos y culturales** en el tejido residencial, se puede hacer mediante edificios específicos o bajo las viviendas. Es conveniente vincular estos usos al espacio público y a los conjuntos residenciales. Evitar que los equipamientos queden aislados y alejados del tejido residencial, ya que obliga a recorrer mayores



17 irudia: behe solairuetan edo solairuarteetan etxebizitzak kokatzea alternatiba ona izan daiteke kalearekiko interakziorik ez duten horma itsuak saihesteko eta espazio publikoa zainketa naturalez hornitzeko. Etxea eta kalearen arteko lorategien bitartez, behe solairuetako pribatutasuna bermatu daiteke, aldi berean zainketa naturala ahalbidetuz.

Imagen 17: Situar viviendas en planta baja o entreplanta que doten de vigilancia natural al espacio público, puede ser una buena alternativa para evitar zócalos ciegos y sin interacción hacia la calle. Los jardines intermedios aseguran cierta privacidad a las viviendas respecto a la calle, además de permitir la vigilancia natural.

18 irudia: etxe atxiki edo/eta familia bakarreko etxe gehiegi piltzeak kalean jende mugimendu eta zainketa natural urria izatea ekar dezake.

Imagen 18: Una concentración excesiva de viviendas adosadas y/o unifamiliares puede generar calles poco transitadas y con poca vigilancia natural.



19 irudia: hiri trinkoan dentsitate ertaineko bizitegi multzoak txertatzea aukera ona izan daiteke hiriko egiturak dentsitatea ez galtzeko eta, aldi berean, lorategi pribatudun etxebizitzak eskaintzeko.

Imagen 19: La inserción de conjuntos residenciales de densidad media en la ciudad compacta puede ser una buena alternativa para que el tejido urbano no pierda densidad y a la vez proporcionar viviendas con jardín privado.

har izatea eta probabilitate handiagoa baitago horien inguruan jende mugimendu gutxiko eremuak sortzeko.

3.1.2.6. Ahal den neurrian, hiriguneen kanpoaldean **merkataritza eremu handiak** planifikatzea saihestu behar da, garraio pribatuan mugitzera behartzen baikaituzte. Horrez gainera, merkataritza txikiaren desagertzea eragiten dute, eta auzoek bizitasuna galtzen dute.

3.1.2.7. **Beheko solairuetako** saltokiek eta zerbitzuek zainketa naturala eta kaleko interakzioa sortzen laguntzen dute. Dena den, hiriko eremu guztietan ezin dute aurrera egin beheko solairuetan kokatutako saltokiek (aldirietan, adibidez). Kasu horietan, beste aukera batzuk bilatu behar dira, behe solairuak ez daitezela horma itsu bihurtu (17 irudia).

3.1.2.8. Auzoek hainbat eratako pertsonak hartu behar dituzte. **Bizileku tipologiak eta etxebizitza motak nahasteak** profil sozioekonomiko desberdinen eta belaunaldi desberdinen arteko fusioa mesedetzen du (12 eta 18 irudiak), eta ghettoak sortzea nahiz giza talde zaugarriak pilatzea ekiditen du. Horretarako, garrantzitsua da **etxebizitza mota anitz** eskaintzea tamainari, motari eta eskuragarritasunari dagokienez. Auzoen gentrifikazioa saihesteko politika publikoak sortu behar dira.

3.1.2.9. **Dentsitate txiki eta handiko etxebizitzak** bateratu eta fusionatzen dituzten dentsitate ertaineko hiri bilbeak sortu behar dira (19 eta 20 irudiak).

distancias y es más probable que se generen lugares de poco tránsito en torno a ellos.

3.1.2.6. En la medida de lo posible, evitar planificar **grandes superficies comerciales** en las periferias de los núcleos urbanos, que nos obligan a desplazarnos en transporte privado. Además, provocan la desaparición del pequeño comercio, con lo que se pierde vitalidad en los barrios.


3.1.2.7. Los comercios y servicios en **las plantas bajas** ayudan a generar vigilancia natural e interacción a nivel de calle. Sin embargo, no en todas las áreas urbanas pueden prosperar los comercios situados en planta baja (en las periferias por ejemplo). En estos casos hay que buscar alternativas para que las plantas bajas no se acaben convirtiendo en zócalos ciegos (imagen 17).

3.1.2.8. Los barrios deben ser habitados por distinto tipo de personas (diversidad de culturas, generaciones y posición socioeconómica). La **mezcla de tipologías residenciales y tipos de vivienda** favorece la fusión entre diferentes perfiles socio-económicos y generacionales (imágenes 12 y 18), evitando la generación de guetos y la concentración de grupos humanos vulnerables. Para ello es importante proporcionar una **variedad de tipos de vivienda** en términos de tamaño, tipo y asequibilidad. Es necesario generar políticas públicas que eviten la gentrificación de los barrios.

3.1.2.9. Generar tramas urbanas que integren y fusionen **viviendas de baja y alta densidad**, que den como resultado una densidad mediana de la trama urbana (imágenes 19 y 20).

20 irudia: Spaarndammerburt auzoak (Amsterdam) dentsitate txiki eta ertaineko etxebizitzak fusionatzen ditu, eta espazio pribatu eta komunitarioen eskaintza zabala sortzen du. Hori alternatiba ona izan daiteke etxebizitza atxiki eta familia bakarreko etxebizitza gehiegi pilatzea ekiditeko eta jende mugimendu nahiz zainketa natural urriko kaleak saihesteko.

Imagen 20: Spaarndammerburt (Amsterdam) fusiona viviendas de densidad media y baja y crea una amplia oferta de espacios privados y comunitarios. Esto puede ser una buena alternativa para evitar la acumulación excesiva de viviendas unifamiliares y adosadas, y la creación de calles de escaso movimiento de personas y vigilancia natural.



21 irudia: garraibide desberdinek espazioa partekatzzen dutenean, kalean interakzio eta zainketa natural gehiago dago.

Imagen 21: Cuando los diferentes medios de transporte comparten espacio, la calle gana en interacción y vigilancia natural.

3.1.3. Mugikortasun sarea

3.1.3.1. Hiri egiturak **ongi zehaztutako mugimendu esparru** bat eduki behar du, ibilbide alternatibo seguruak eskaintzen dituzten elkarri lotutako kaleekin.

3.1.3.2. **Oinez, bizikletaz eta garraio publikoan mugitzea lehenetsi behar da**, ibilgailuen zirkulazio bizkorreko bide handien eraikuntzaren gainetik. Autobideak eta autobiak bizitegi eremuetatik kanpo utzi behar dira, ingurumenean inpaktua dutelako, auzoetan haustura fiskoa eragiten dutelako eta segurtasunik gabeko lekuak sortzen dituztelako (pasabideak eta abar).

3.1.3.3. Etxebizitzak, ekoizpen eremuak, saltokiak, zaintzarako ekipamenduak nahiz zerbitzuak eta aisialdirako eremuak **hurbil eta elkarrekin konektatuta** egotea komeni da. Modu horretan, joan-etorriak ez dira hain luzeak eta, ondorioz, espazio ez-seguruak izateko aukera txikitu egiten da.

3.1.3.4. Mugikortasun sare on batek **ibilbide zuzenak** sortzen ditu, segurtasunez joan ahal izateko edonora edozein garraibidez: oinez, bizikletaz edo garraio publikoan. Mugikortasun sareak pertsona ororen beharrak ase behar ditu, baita adinekoenak eta desgaitasun motaren bat duten pertsonenak ere.

3.1.3.5. Mugikortasun sare on batek **elkarrekin ongi konektatuta dauden kaleak eta jende zirkulazioa dutenak** eskaintzen ditu, eta hainbat **ibilbide alternatibo** egiteko aukera ematen die herritarrei. Ahal den neurrian, ezabatu egin behar dira espazio ez-seguru bilaka daitezkeen kalezulo gutxi erabiliak, lasterbideak, bidezidorrak eta bigarren

3.1.3. Red de movilidad

3.1.3.1. El tejido urbano debe tener un **marco de movimiento bien definido**, con calles interconectadas que brinden rutas alternativas seguras a los diferentes destinos.

3.1.3.2. **La movilidad a pie, bicicleta y transporte público debe priorizar** sobre la construcción de grandes vías de tránsito rodado rápido. Tratar de excluir autopistas y autovías de las áreas residenciales por el impacto ambiental, la fractura física que ocasionan en los barrios y la generación de lugares inseguros (túneles, etc.).

3.1.3.3. **La proximidad y la interconexión** entre vivienda, espacios productivos, comercio de cercanía, equipamientos y servicios dedicados a los cuidados, y espacios para el ocio hacen que los desplazamientos no sean tan largos, lo cual reduce la posibilidad de que haya espacios inseguros. La proximidad debe ser entendida en su dimensión física y temporal.

3.1.3.4. Una buena red de movilidad tiene **rutas directas** que llevan a las personas de forma segura a cualquier lugar en cualquier medio de transporte: a pie, en bicicleta o en transporte público. Esto debería cubrir las necesidades de todas las personas, incluidas las personas mayores y las personas con algún tipo de discapacidad.

3.1.3.5. Una buena red de movilidad ofrece **calles bien conectadas y transitadas**, que brindan a las personas una variedad de **rutas alternativas**. En lo posible hay que eliminar callejones infrautilizados, atajos, senderos y puntos de acceso menores que pueden convertirse en

22 irudia: Muturretan argi, zirkulazio eta zainketa natural gutxi dituen tunel estu bat espazio ez-segurua da oinezko eta txirrin-dularientzat.

Imagen 22: Un túnel estrecho, con poca iluminación, tránsito y vigilancia natural en sus extremos, es un espacio inseguro para peatones y ciclistas.



23 irudia: Parke publiko batera daraman tunel bat (mugimendu iragarlea) leku potentzialki ez-segurua da.

Imagen 23: Un túnel (predicador de movimiento) que da acceso a un parque público es un lugar potencialmente inseguro.

24 irudia: ihesbiderik gabeko puntu batean 24 ordu zainketa naturala eskaintzen duen jarduera bat sartzea irtenbide ona da. Horren adibidea da Deustuko (Bilbo) suhiltzaileen geltokiaren ezarpena.

Imagen 24: La inserción de una actividad que genera vigilancia natural las 24 horas del día en un punto de atrapamiento es una buena solución; un ejemplo de ello es la implantación de la estación de bomberos de Deusto (Bilbao).



mailako sarbideak. Hierarkiaz konfiguratu behar dira mugikortasun sare berriak.

3.1.3.6. Ahal den neurrian, oinezkoentzako, bizikletentzako eta ibilgailuentzako ibilbideek espazioa partekatu behar lukete, eta ez berezita egon, era horretara **interakzioa** eta **zainketa naturala** irabazten baitituzte hiriko espazioek (21 irudia). Oinezkoentzako eta bizikletentzako bideek eremuko beste ibilbide batzuekin fisikoki bateratuta daudenean, mugimenduaren aurrikusgarritasuna ekiditen da eta herritarrei **mugitzeko alternati-bak** eskaintzen zaizkie. Oinezkoak eta ibilgailuak kota berean mantendu behar dira, **mugimendu iragarleak** edo espazio larderiatsuak (tunelak edo gainbideak, adibidez) sortzea ekiditeko.

3.1.3.7. Ibilgailuen zirkulazioaren **abiadura murrizteko neurriak** ezartzeak oinezkoen eta ibilgailuen arteko elkarbizitza errazten du. Ibilgailuen joan-etorri mantoak gidarien zainketa naturala ahalbidetzen du.

3.1.3.8. Lotura kale nagusiek **ikusmen lerro luzeak** eduki behar dituzte, zirkulazioari laguntzeko eta puntu arriskutsuetan ikuspena handitzeko.

3.1.3.9. Ibilbide nagusiek **irakurgarriak** izan behar dute, eta **seinaleztapen** ona eduki behar dute. Era berean, **interesguneak eta zaintzarako espazioak** eduki behar dituzte, hala nola azoka postuak, saltokiak, eserleku publikoak edo tabernetako terrazak; horrelakoek eguneroko jarduerak errazten dituzte, eta espazio publikoan ibiltzera eta interakzioan aritzera animatzen dituzte pertsonak.

3.1.3.10. **Ihesbiderik gabeko puntuak** (kalezulo/espazioitsuak, besteak beste) eta **mugimendu**

espacios inseguros. Configurar las nuevas redes de movilidad con sentido de jerarquía.

3.1.3.6. En la medida de lo posible, las rutas para peatones, ciclistas y vehículos deberían compartir espacio, y no estar segregadas, ya que los espacios urbanos ganan en **interacción** y **vigilancia natural** (imagen 21). Cuando los carriles para peatones y bicicletas están físicamente integrados con otras rutas de la zona, se evita la previsibilidad del movimiento y se ofrece a las personas **alternativas de movimiento**. Mantener a los peatones y a los vehículos a la misma cota evita crear **predictores de movimiento** o espacios intimidantes (como túneles o pasos elevados).

3.1.3.7. Instalar **medidas de reducción de velocidad** para el tráfico rodado facilita la convivencia entre peatones y automóviles. El tránsito de automóviles a poca velocidad posibilita la vigilancia natural de conductoras y conductores.


3.1.3.8. Las principales calles de conexión deben tener **líneas de visión largas** para ayudar a la circulación y la visibilidad de los puntos peligrosos.

3.1.3.9. Las rutas principales deben tener una buena **legibilidad y señalización**. También deben tener **puntos de interés y espacios para los cuidados**, como puestos de mercado, comercios, bancos públicos o terrazas de bares, que faciliten las actividades cotidianas y animen a las personas a transitar e interactuar en el espacio público.

3.1.3.10. Los **puntos de atrapamiento** como callejones/espacios sin salida y los **predictores de movimiento** como túneles, pasarelas, pasos

25 irudia: South Kilburn (Londres) eremuko hiri berriztapenak lehenik zegoen hiri eta gizarte egitura errespetatu ditu; gainera, etxebizitza mota berriak sartu, kalitatezko espazio publiko berriak sortu eta kalea eta giza eskala berreskuratu ditu.

Imagen 25: La regeneración urbana de South Kilburn (Londres) ha respetado el tejido urbano y social existente; además, ha insertado nuevos tipos de vivienda, ha generado nuevos espacios públicos de calidad y ha recuperado la calle y la escala humana.



Imágenes 26 y 27: kaleetan jarduera duten eta ongi mantendutako eraikinak dituzten alde zaharrak leku seguruak dira.

Imágenes 26 y 27: Los cascos antiguos con actividad en sus calles y edificios bien mantenidos son lugares seguros.

iragarleak (tunelak, pasabideak, lurpeko igarobideak eta zubibideen azpiko eremuak) ezabatu egin behar dira, ahal den neurrian (22 irudia).

3.1.3.11. **Ihesbiderik gabeko puntuei eta mugimendu iragarleei lotutako espazio publikoak** bereziki kritikoak dira. Esate baterako, ekidin egin behar da aparkalekuak eta parkeak kalezuloetatik edo lurpeko igarobideetatik hurbil kokatzea (23 eta 24 irudiak).

3.1.3.12. **Mugikortasuneko aldageltokiak** (garraino publikoko geltokiak, aldirietako disuasio aparkalekuak, etab.) jarduera nodoekin eta ekipamendu komunitarioekin lotzen saiatu behar da beti. Aldageltokiak eremu bakartuetan edo/eta jarduera gutxiko lekuetan kokatzea saihestu behar da, kostata ahala kostata.

3.1.4. Hiri berriztapena

3.1.4.1. **Hiri antolamenduak existitzen diren egitura sozial eta fisikoak errespetatu behar ditu** (25 irudia). Auzoetako morfologian edo osaera demografikoan aldaketa bortitzak sortuz gero, gizarte sarea, lurraldetasun sentimendua eta kohesioa ahuldu daitezke, eta horrek segurtasunik eza eragin dezake.

3.1.4.2. **Hiri bilbe zaharrak** (alde zahar edo errebalenak) bereziki zaugarriak izaten dira, eta tratu berezia ematea komeni da (26 eta 27 irudiak). Bizitegi zaharkituek eta hondatuek, kale estuek eta gehiegizko dentsitateak eremu ez-seguruarik sor ditzakete. Hiri bilbe horietan hiri mantendu eta berritzeko programak aplikatu

inferiores y áreas debajo de los viaductos deben ser eliminados en la medida de lo posible (imagen 22).

3.1.3.11. Los **espacios públicos ligados a puntos de atrapamiento y predictores de movimiento** son especialmente sensibles. Por ejemplo, se debe evitar situar aparcamientos y parques cerca de callejones o pasos subterráneos (imágenes 23 y 24).

3.1.3.12. Tratar de vincular siempre los **intercambiadores de la movilidad** (paradas de transporte público, aparcamientos disuasorios en la periferia, etc.) a nodos de actividad y a equipamientos comunitarios. Evitar a toda costa que los intercambiadores de la movilidad estén situados en zonas aisladas y/o con poca actividad.

3.1.4. Regeneración urbana

3.1.4.1. El planeamiento urbano debe **respetar las estructuras sociales y físicas existentes** (imagen 25). Generar cambios bruscos en la morfología o en la composición demográfica de los barrios existentes puede socavar la red social, el sentido de territorialidad y la cohesión, lo cual genera inseguridad.

3.1.4.2. Las **tramas urbanas antiguas** (de casco antiguo o arrabal) suelen ser especialmente sensibles, por lo que es recomendable darles un trato especial (imágenes 26 y 27). La confluencia de un parque inmobiliario envejecido y deteriorado, la morfología de sus calles (calles estrechas en relación a la altura), y una densi-



28 irudia: Industria eraikin zaharrak kultur eta aisialdirako espazio bihurtzeak dinamizatu egiten du hiria eta inguruko espazio publikoa aktibatzen du, Igara auzoan (Donostia) gertatu den moduan.

Imagen 28: La reconversión de antiguos edificios industriales en espacios culturales y de ocio dinamiza la ciudad y activa el espacio público circundante, como ha ocurrido en el barrio de Egia (Donostia).

29 irudia: Eremu mortuak aldi baterako proiektuen bitartez aktiba daitezke; horren adibidea da Har Etxea/Kabia izeneko proiektua (Errenteria).

Imagen 29: La activación de espacios baldíos se puede realizar a través de proyectos temporales como Har Etxea/Kabia (Errenteria).



behar dira, profil sozioekonomiko desberdinen nahasketa sustatu behar da eta hiri egiturari “arnasa emango” dioten espazio publikoen sare bat sortu behar da. Horrelako hiri bilbeetan, aparkalekuen eta elementu handien presentziak (zabor edukiontziak, adibidez) oinezkoen zirkulazioa, kaleko jarduera eta ikusgaitasuna zailtzen dituzte.

3.1.4.3. **Abandonatuta, erortzeaz edo gaizki zainduta dauden erakinek eta espazioek** irudi txarra ematen dute. Eraikinak zaharberritzeak izan behar du beti lehen aukera, batik bat etxebizitzaren eraikinak badira, horrek gizarte egitura mantentzea ahalbidetzen baitu.

3.1.4.4. **Ondare elementu historikoak zaharberritzea edo birmoldatzea** aukera ona izan daiteke hiri egitura berritzeko, eraikin horiek espazio publikoaren aktibatzaile gisa jardun baitezakete, eta hiri zentraltasun berri bat sortu (28 irudia).

3.1.3.5. **Eremu mortuek** trataera berezia behar dute. Komenigarria da eremu mortuen “tarteko denbora” (hiri plangintza finkatzen den artekoa) kudeatzeko aukera ematen duten erabilerak eta jarduerak proposatzea. Eremu mortuak esperimentaziorako lekuak izan daitezke, eta hiriari bizitasuna eta dinamismoa eman diezaiokete aldi baterako erabilerekin (29 irudia).

dad y compacidad excesiva, pueden generar múltiples zonas inseguras. En estas tramas urbanas es necesario aplicar programas de mantenimiento y regeneración urbana, fomentar la mezcla de diferentes perfiles socio-económicos y generar una buena red de espacios públicos que “den aire” al tejido urbano. La presencia de aparcamientos y de elementos voluminosos en este tipo de tramas urbanas (contenedores de basura por ejemplo), dificultan el tránsito peatonal, la actividad en la calle y la visibilidad.

3.1.4.3. Los **edificios y espacios abandonados, en ruinas o descuidados** transmiten una mala imagen. La remodelación de los edificios debe ser siempre la primera opción, sobre todo si son de viviendas, ya que posibilita mantener el tejido social existente.

3.1.4.4. La **rehabilitación o reconversión de elementos históricos patrimoniales** puede ser una buena oportunidad para regenerar el tejido urbano, ya que estos edificios pueden actuar como activadores del espacio público y generar nuevas centralidades (imagen 28).

3.1.3.5. Los **espacios baldíos** necesitan un tratamiento específico. Es conveniente proponer usos y actividades que permitan gestionar el mientras tanto de los espacios baldíos (el tiempo hasta que la planificación urbana se consolide). Los espacios baldíos pueden ser lugares para experimentar con usos temporales que provean a la ciudad de actividad y dinamismo (imagen 29).

30 irudia: Kalitatezko espazio publiko dinamikoak, ikusgarritasun eta konektibitate onekoak, iradokitzaileak eta giza eskalakoak jendea erakartzen du, konfiantza eta erosotasun sententzia ematen ditu eta segurtasun ezaren pertzepzioa murrizten ditu.

Imagen 30: Un entorno de calidad, dinámico, con buena visibilidad y conectividad, sugerente y a escala humana, atrae a la gente, transmite confianza y sensación de confort, y reduce la percepción de inseguridad.



3.2. ESPAZIO PUBLIKOA

3.2.0.1. Kalitatezko espazio publikoa espazio segurua da. **Kalitatezko espazio publikoak** (30 irudia) zuzen erantzun behar du honako hauei dagokienez:

- Hirigintza: espazio publiko batek lehen mailako hiri elementu egituratzailea izan behar du; ez da hondar espazioa izan behar, pasatzeakoa besterik ez dena.
- Politika: espazio demokratikoa izan behar du, gizarteari adierazten utziko diona eta edozein pertsonak askatasunez erabil dezakeena. Kultura eta adin desberdinetako pertsonak aldi berean gozatu duten espazioa izan behar du.
- Kultura: helburu sinbolikoa izan behar du, identitate kolektiboa sortuko duena. Espazio publikoak hezitzailea eta emantzipatzailea izan behar du.

3.2.0.2. Pertsonak erakarri ohi dituzten espazioek segurtasun sentazioa sortu ohi dute, "kalean begiak" eta beharrezkoa izan daitekeen laguntza ziurtatzen dutelako. Horretarako:

- Oinez ibiltzeko modukoa eta eroso izan behar du.
- Jarraitutasuna, irisgarritasuna eta mugikortasuna ziurtatu behar ditu.
- Hiri eskala guztiei erantzuna eman behar die: lurraldekoari, auzokoari eta mikro-hirikoari.

3.2. ESPACIO PÚBLICO

3.2.0.1. Un espacio público de calidad es un espacio seguro. Un **espacio público de calidad** (imagen 30) debe dar una respuesta correcta a lo:

- Urbanístico: el espacio público debe ser un elemento urbano primario y estructurador; no debe ser un espacio residual, simplemente de paso.
- Político: debe ser un espacio democrático que permite que la sociedad se manifieste y del que pueda hacer uso cualquier persona libremente. Debe ser el soporte para que lo disfruten diferentes personas, de culturas y de edades diferentes al mismo tiempo.
- Cultural: debe tener una finalidad simbólica, generador de identidad colectiva. El espacio público debe ser educador y emancipador.

3.2.0.2. Los espacios que atraen a las personas suelen generar sensación de seguridad, ya que aseguran la presencia de "ojos en la calle" y posible auxilio. Para ello debe:

- ser caminable y confortable.
- asegurar la continuidad, la accesibilidad y la movilidad.
- dar respuesta a todas las escalas urbanas: la territorial, la barrial y la micro-urbana.

31 irudia: espazio publikoak ondo zehaztuta egon, eta iradokitzailea izan behar du, eta bizitasuna eduki.

Imagen 31: El espacio público debe ser sugerente y tener vitalidad



32 irudia: Elementu eraikiak (hormak edo zutabe handiak, besteak beste) saihestu egin behar dira espazio publikoan: ikusmen larroak eteten dituzte (balizko ezkutalekuak) eta gutxi zaindu-tako eremuak sortzen dituzte.

Imagen 32: Los elementos contruidos (como muros o grandes pilares) deben evitarse en el espacio público: interrumpen las líneas de visión (posibles escondites) y generan zonas poco vigiladas.



3.2.1. Ezaugarri fisiko eta morfologikoak

3.2.1.1. Espazio publikoak muga argia izan behar du, erraz identifikatzeko modukoa, **espazio multzoaren irudi mentala eraiki** ahal izateko.

3.2.1.2. Espazio publikoak zainketa naturala izan behar du. Horretarako:

- **Jarduera sortzaileak** kokatu behar dira estrategikoki: ekipamenduak (eskola baten jolastokia, adibidez), saltoki txiki ibiltariak (kioskoak parkeetan, kasurako) edo mikro-hiri eskalako altzariak (ondo kokatutako banku eta eserlekuak) (31 irudia).
- **Espazio irekiak eta ondo argiztatutak** sustatu behar dira.

3.2.1.3. Espazio publikoa diseinatzean, balizko **ezkutalekuak eta zainketa naturalik gabeko gu-neak** saihestu behar dira (32 irudia), hala nola:

- Oinezkoentzako ibilbide nagusien alboko kale itsuak.
- Eraikin aurre zokodunak (irtenak/sartuak, larrialdi irteeretarako arkupeak, etab.).
- Zutabe handiko arkupeak (ikusi 54 irudia).
- Oinezkoen fluxu nagusietatik urrun dauden ekipamenduak, hala nola komun publikoak, kutxazain automatikoak edo telefono publikoak.
- Jende gutxi ibiltzen den eta gaizki argiztatuta dauden leketan jarritako geltokiak (taxi, autobus edo tranbia).

3.2.1.4. **Mugimendu iragarleak** ezinbestekoak direnean, ikusgaitasuna eta zainketa naturala areagotu behar dira ahal den heinean. Mugimendu iragarleak:

3.2.1. Cualidades físicas y morfológicas

3.2.1.1. El espacio público debe tener un contorno claro, fácilmente identificable para poder **construir una imagen mental del conjunto del espacio**.

3.2.1.2. El espacio público debe estar provisto de vigilancia natural. Para ello se debe:

- Ubicar estratégicamente **generadores de actividad**, que doten de ojos a la calle en diferentes escalas: equipamientos (el patio de una escuela, p.e.), pequeños comercios ambulantes (quioscos en parques por ejemplo) o mobiliario a escala micro-urbana (banco y asientos bien ubicados) (imagen 31).
- Fomentar **espacios abiertos y bien iluminados**.

3.2.1.3. El diseño del espacio público debe evitar posibles **escondites y zonas sin vigilancia natural** (imagen 32), como:

- Callejones sin salida anexos a rutas peatonales principales.
- Frentes de edificios con recovecos (salientes/entrantes, soportales para salida de emergencia, etc.).
- Soportales con grandes pilastras (ver imagen 54).
- Equipamientos como baños públicos, cajeros automáticos o teléfonos públicos alejados de zonas transitadas que proveen de vigilancia natural.
- Paradas (de taxi, autobús o tranvía) situadas en zonas poco transitadas y mal iluminadas.



33 irudia: Eskailera eta igogailu publikoek ikusteko eta ikusiak izateko aukera eman behar dute. Ezkerreko igogailuak ikusgaitasuna ahalbidetzen du ibilbidean zein sarrera-irteeran; eskuinekoak ez.

Imagen 33: Las escaleras y ascensores públicos deben permitir ver y ser vistas/os. El ascensor de la izquierda asegura la visibilidad tanto en el trayecto como en el desembarque, el de la derecha no.

- Ahalik eta zabalenak eta laburrenak izan behar dute, sarbidea sarreratik ikusteko moduan izanik.
- Inguruetatik argi eta garbi ikusteko modukoak izan behar dute, zainketa naturala hobetuz, eskailerak, maldak edo gainbideak badira.
- Ahal den heinean gainbide edo biaduktu ikusgarriak erabili behar dira, eta ez lurpeko igarobideak.
- Argi naturala izan behar dute ahal den heinean, eta argi artifizial asko tunelak badira. Argiztapenak uniformeak, ondo kokatua eta bandalisoaren aurkakoa izan behar du.
- 20 metroko ikusgaitasuna izan behar dute gutxienez.
- Ekidin egin behar dira leku isolatuak eta babesgabeak mugimendu iragarleen sarreretan. Bertan, jarduera, joan-etorriak eta zainketa naturala sustatu behar dira.
- Sarrera-irteerek argi eta garbi seinalizatua egon behar dute.
- Azken baliabide gisa, segurtasun hardwarea sartu behar da (ispiluak, larrialdietako telefonoak, larrialdietako seinaleak, interkomunikazio sistemak edo alarmak). Hardwarea jartzea komeni da lurpeko igarobidea 35 metro luze edo gehiago bada (ikusi 3.2.3 Argiztapena, seinalizatapena eta ekipoak).

3.2.1.5. Espazio publikoko **ihesbiderik gabeko puntuak** kendu ezin badira (33 irudia):

- Ahalik eta ikusgarrien eta zainduen egin behar dira (beirazko atea igogailu publikoetan edo beirazko itxiturak aparkalekuetako irteeratan, adibidez).
- Ez dira jarri behar eremu isolatuetan.
- Espazioaren diseinuan ihes egiteko eta laguntza aurkitzeko aukerak sartu behar dira.
- Gazez itxi egin behar dira.

3.2.1.4. Allí donde los **predictores de movimiento** son inevitables, se debe aumentar en lo posible la visibilidad y la vigilancia natural. Los predictores de movimiento deben:

- ser lo más ancho y lo más corto posible con la salida visible desde la entrada.
- ser claramente visibles desde las inmediaciones, mejorando la vigilancia natural, en el caso de escaleras, rampas o pasos elevados.
- ser preferiblemente pasos elevados (como viaductos) visibles y no pasos inferiores.
- introducir luz natural en la medida de lo posible y altos niveles de luz artificial en el caso de túneles. La iluminación debe ser uniforme, bien ubicada y antivandálica.
- tener una visibilidad de al menos 20 metros.
- fomentar la actividad en el entorno, que provea de tránsito mínimo y vigilancia natural. Evitar lugares aislados e inhóspitos en las entradas de los predictores de movimiento.
- deben estar claramente señalizadas sus entradas y salidas.
- como último recurso, introducir hardware de seguridad (espejos, teléfonos de emergencia, señalética de emergencia, intercomunicadores o alarmas). Es conveniente la instalación de hardware si el paso inferior tiene más de 35 metros de largo (ver 3.2.3 Iluminación, señalización y equipos).

3.2.1.5. En el caso de que los **puntos de atrapamiento** en el espacio público no se puedan eliminar (imagen 33):

- hacerlos lo más visibles y vigilados posible (puerta de vidrio en ascensores públicos o cerramientos de vidrio en salidas de estacionamientos, p.e.).
- no situarlos en zonas aisladas



34 irudia: Zolatutako eremu handiek atsekabe sententzia eragiten dute, eta, ondorioz, jende gutxi ibiltzen da horietatik eta nekez dute zaintza naturala.

Imagen 34: Las grandes áreas pavimentadas generan sensación de desolación, y en consecuencia, lugares poco transitados y vigilados.



35 irudia: Parke batek segurtasun pertzepzioa sortzen du jarduera, zainketa naturala eta ikusgaitasuna dituenean.

Imagen 35: Un parque genera percepción de seguridad cuando tiene actividad, vigilancia natural y visibilidad.

3.2.1.6. Arreta berezia jarri behar da **mugako edo trantsizioko espazioak** diseinatzean, hala nola alde batean etxebizitzaren eraikinak eta bestean industriak, ekipamendu erabat hermetikoa edo bulegoen eraikinak dituzten kaleetan. Ordu batetik aurrera ez da jarduerarik izango kalearen alde batean, eta, beraz, zainketa naturalik ere ez. Eremu horiek bereziki arazotsuak dira argiztapen onik ez badago eta ikusgaitasun txarra badago.

3.2.1.7. Arreta berezia jarri behar da **desnibel handiko guneetan edo lursail maldatsuetan** (33 irudia); izan ere, oztopo bisualak sor ditzakete eta legez kanpoko jardueretarako espazioak sustatu.

3.2.1.8. **Oinezkoak igarotzeko eremuak** ez dira oso zabalak izan behar, ezta oso estuak ere. Espaloi estuetan igarotzea zaila da (haurren orgekin edo gurpil aulkian) eta, era berean, ez seguruak izan daitezke espazio faltagatik. Espaloi zabalegiek (34 irudia) huts sentsazioa eman dezakete eta mantentze lan gehiago behar dituzte.

3.2.1.9. **Oinezkoentzako pasealekuek** ikusgaitasuna ahalbidetzeko eta balizko ezkutalekuak ez sortzeko moduan diseinatu behar dira; ahal den heinean, zuzenak eta zabalak izan behar dute. Ahal bada, ez dira jarri behar ikusgaitasuna eragozten eta zainketa naturala murrizten duten horma itsuak, horma pikoak, oinezkoentzako pasealekuen ondoko plantazioak eta antzeko elementu fisikoak.

3.2.1.10. **Gune berdeek** (parkeak eta lorategiak) seguruak izan behar dute (35 eta 36 irudiak). Horretarako, hau komeni da:

- incorporar en el diseño del espacio oportunidades para escapar y encontrar ayuda.
- hacerlos inaccesibles a la noche.

3.2.1.6. Poner especial atención en el diseño de **espacios frontera o transición**, como calles que tienen a un costado edificios de viviendas y al otro industrias, un equipamiento totalmente hermético o edificios de oficinas. A ciertas horas deja de haber actividad en un costado de la calle y por tanto deja de haber vigilancia natural. Estas zonas son especialmente problemáticas si no existe buena iluminación y hay mala visibilidad.

3.2.1.7. Poner una atención especial en zonas con **grandes desniveles o terrenos pronunciados** (imagen 33), ya que se pueden crear barreras visuales y fomentar espacios para actividades ilegales.

3.2.1.8. Las **zonas de tránsito peatonal** no deben ser ni muy anchas ni muy estrechas. En las aceras estrechas es difícil transitar (con los carros de bebés o en silla de ruedas) y pueden resultar inseguros por la falta de espacio. Las aceras demasiado anchas (imagen 34) pueden dar sensación de desolación y requieren mayor mantenimiento.

3.2.1.9. Los **paseos peatonales** deben diseñarse para permitir la visibilidad y evitar la creación de posibles escondites; en lo posible deben ser rectos y anchos. Deben evitarse elementos físicos como muros ciegos, hastiales o plantaciones junto a paseos peatonales que impidan la visibilidad y reduzcan la vigilancia natural.

3.2.1.10. Las áreas verdes (parques y jardines) deben ser seguras (imágenes 35 y 36). Para ello es recomendable que:



36 irudia: Parke handiek pertsonen presentzia sustatu behar dute erabilera eta jarduera desberdinen bidez (beren erdigunean batez ere), argiztapen eta seinalaztapen zuzena ziurtatu eta gauetan ixtea ahalbidetu zaintza eta laguntza bitarteko onik bermatzen ez bada .

Imagen 36: Un parque de grandes dimensiones debe promover la presencia de personas a través de diferentes usos y actividades (en zonas centrales sobretudo), asegurar una correcta iluminación y señalización, y posibilitar su cierre a las noches si no asegura una buena vigilancia y medios de auxilio.



37 irudia: Berdeguneetako haurren jolasguneek zaintza naturala eta jarduera sortzen dute.

Imagen 37: Las zonas de juego infantiles en las áreas verdes son generadoras de vigilancia natural y actividad.

- Bertatik jendea ibiltzea. Hiri eskalako mugikortasun sare baten parte izatea eta zentraltasun gisa aintzat hartzea.
- Erabiliak izatea. Adin desberdinetako pertsonentzako eremuak sortu behar ditu (haurrentzako jolas guneak, kirol eremuak, adinekoentzako jolas guneak, hiri ortuak, jarduera soziokulturalak...) (37 irudia).
- Zainketa naturala izatea. Parkeen perimetroak "aktiboa" izan behar du (leihoak, saltokiak... egotea); parke handietan saltoki txikiak txertatzea (kioskoak, izozki dendak...) komeni da, zainketa naturalik gabeko eremu handiak saihesteko (ikus 64 irudia).
- Gauean ixtea, zaintza eta laguntza bitarteko onik bermatzen ez bada.
- Inguruko leku ez seguruak, ihesbiderik gabeko puntuak edo mugimendu iragarleak kentzea (tunelak, pasabideak...) (ikus 23 irudia).
- Ondo ikustea eragozten duten landareak inaus-tea edo kentzea (zuhaitzak eta zuhaixkak).
- Zaintza handiegirik behar ez duten landareak aukeratzea, mantentze lanak bermatzen ez badira behintzat.

3.2.1.11. **Kirol espazioak** hiriguneetako parke txikietan txertatzen ahalegindu behar da, jarduera sarea indartzen baita. Kirol espazioak etxebizitza saretik hurbil egotea komeni da.

3.2.1.12. Espazio publikoan kokatutako **aparkalekuak** eremu zaurgarriak dira. Oro har, kaleko aparkaleku eremuen diseinuak ikusgaitasun, argiztapen eta zainketa natural onak ziurtatu behar ditu (38 irudia). Hau egin behar da:

- Ahal bada, aparkalekua etxebizitzaren alboan jarri behar da, zainketa naturala izan dezan.

- sean transitadas. Formar parte de una red de movilidad a escala urbana y ser consideradas como una centralidad.
- sean usadas. Crear áreas para personas de diferentes edades (zona de juegos infantiles, áreas deportivas, juegos para personas mayores, huertos urbanos, actividades socio-culturales, etc.) (imagen 37).
- estén provistas de vigilancia natural. El perímetro de los parques debe ser "activo" (presencia de ventanas, comercios, etc.); es recomendable dotar de pequeños comercios (quioscos, heladerías, etc.) a los grandes parques, evitando así grandes áreas sin vigilancia natural (ver imagen 64).
- sean cerrados a la noche si no se asegura una buena vigilancia y medios de auxilio.
- eliminar lugares inseguros de su entorno, como puntos de atrapamiento o predictores de movimiento (túneles, pasarelas, etc.) (ver imagen 23).
- podar o eliminar la vegetación (árboles y arbustos) que impiden una visión clara.
- seleccionar correctamente los elementos vegetales para evitar la degradación en caso de que no vayan a tener un cuidado constante.

3.2.1.11. Tratar de integrar los **espacios deportivos** con los pequeños parques de los núcleos urbanos, ya que se refuerza el sistema de actividades. No alejar los espacios deportivos del tejido residencial.

3.2.1.12. Los **aparcamientos** situados en el espacio público son zonas sensibles. Como norma general, el diseño de las zonas de aparcamiento en la calle debe asegurar buena visibilidad, iluminación y vigilancia natural (imágenes 38).



38 irudia: argiztapen, ikusgaitasun eta zainketa natural gutxiko eremuetan dauden aparkalekuak leku ez-seguruak izan daitezke (ezkerreko irudia). Eremu baztertuetan dauden aparkalekuak, ikuspen gutxikoak eta ibilgailu handiak (ezkutalekuak) pilatzen diren eremuak seguruak ez diren lekuak dira (eskuineko irudia).

Imagen 38: Los aparcamientos situados en zonas con poca iluminación, visibilidad y vigilancia natural son lugares potencialmente inseguros (izquierda). Los aparcamientos situados en zonas apartadas, con poca visibilidad y donde se acumulan vehículos de grandes dimensiones (puntos de ocultación) son lugares potencialmente inseguros (derecha).



39 irudia: Komun publikoek ikusgarriak izan behar dute eta zainketa naturala ematen duen jarduera batetik hurbil egon behar dute, irudian bezala; izan ere, ezkutatzeko eta ihesbiderik gabeko lekuak dira.

Imagen 39: Los baños públicos deben ser visibles y situarse en lugares cercanos a una actividad que proporcione vigilancia natural, como ocurre en la imagen, ya que son lugar de ocultación y atrapamiento.

- Aparkalekuek zainketa naturala eragotz dezaten saihestu behar da.
- Bolumen handiko ibilgailuek eremu zaurgarrietan aparkatzea saihestu behar da, izugarri murrizten dituztelako ikusmen larroak eta ezkutalekuak sortzen dituztelako
- Etxebizitzen aurrealdean aparkaleku gehiegi jartzea ekidin behar da.
- Saltokien aurrean aparkaleku gehiegi jartzea saihestu behar da, batez ere espaloiak zabalak ez badira; izan ere, pertsonak jarduera gutxiago izatea eragiten du.
- Isolatutako aparkaleku eremu handiak saihestu behar dira.

3.2.2. Hiri altzariak eta materialak

3.2.2.1. Espazio publikoak kalitatezko **hiri altzari eta hurbiltasunezko ekipamendu** atseginak eta ondo kokatuak izan behar ditu. Honako hau egin behar dute:

- Jarduera eta zainketa naturala sortu.
- Ikusgaitasuna ez eten.
- Ezkutalekurik ez sortu.
- Jendea ibiltzen den eta zainduta dauden lekuetan egon (bereziki komun publikoak) (39 irudia).
- Zainketak erraztu.
- Mugikortasun sareari mesede egin.

3.2.2.2. Distantzia gutxira **eserleku publikoak** jartzeak, esate baterako, lagundu egiten du pertsonen mugikortasuna atseginagoa izaten

Se debe:

- Colocar preferiblemente el aparcamiento adyacente a las viviendas para proveerle de vigilancia natural.
- Evitar que el estacionamiento obstruya la vigilancia natural.
- Evitar que vehículos de gran volumen estacionen en zonas sensibles ya que reducen enormemente las líneas de visión y proveen de lugares de ocultación.
- Desalentar los frentes de vivienda con mucha acumulación de estacionamiento.
- Desalentar los espacios de estacionamiento frente a los comercios, si es que las aceras no son amplias, ya que desalienta la actividad de las personas.

3.2.2. Mobiliario urbano y materiales

3.2.2.1. El espacio público debe estar dotado de **mobiliario urbano** y **equipamientos de cercanía** de calidad, amable y bien ubicados. Deben:

- generar actividad y vigilancia natural.
- no interrumpir la visibilidad.
- no generar escondites.
- estar ubicados en zonas transitadas y vigiladas (en especial baños públicos) (imagen 39).
- Facilitar los cuidados.
- Dar soporte a la red de movilidad.

3.2.2.2. La implantación de **asientos públicos** a corta distancia por ejemplo, ayuda a que la mo-

40 irudia: eserleku eroso eta ondo kokatuak dituen espazio publiko batek jendea erakartzen du; horri esker, zainketa naturaleko lekuak sortzen dira.

Imagen 40: Un espacio público dotado de asientos cómodos y bien ubicados atrae a las personas, lo cual genera lugares con vigilancia natural.



41 irudia: Hiri altzariek ez dute eten behar ikuspegia, ezta ezkutalekuak sortu ere (ezkerreko irudia); markesinetan eta metro sarbideetan beira erabiltzeak ikusgaitasuna ziurtatzen du espazio publikoan (eskuineko irudia).

Imagen 41: El mobiliario urbano no debe interrumpir la visión ni generar lugares de ocultación (imagen izquierda); el uso del vidrio en marquesinas y entradas de metro asegura la visibilidad en el espacio público (imagen derecha).

(atseden eremua) eta zaintza naturaleko egonlekuak sortzen. Eserleku publikoek arrakasta izateko (40 irudia), eguzkia, aire korranteak, oinezkoen zirkulazioarekiko erlazioa eta paisaiarekiko eta ikuspegiarekiko erlazioa hartu behar dira kontuan, besteak beste.

3.2.2.3. Autobus, tranbia edo taxi **geltokiak** jendea ibiltzen den eremuetan jarri behar dira, zainketa natural eta jardura dagoen lekuan (41 irudia). Oinezkoen fluxu gutxi dagoen lekuetan jartzea saihestu behar da.

3.2.2.4. **Material eta elementu sendoak** (zoaduran eta hiri altzarrietan) sustatu behar dira, baita espazioaren izaerarekin bat datozen xehetasunak ere. Mantentze lan ugari edo askotan ordezkatu beharreko material oso ahulak saihestu behar dira espazio publikoan.

